

Zerbitzu sozialen euskal sistema sendotzearen alde

Hirugarren sektoreko ekintza sozialaren esparruan dugun lan-ibilbideak eskaintzen digun ikuspegitik abiatuta, deklarazio hau sinatzen dugun pertsona eta entitateek jakin badakigu zerbitzu sozialean euskal sistema sendotzeko beharra dagoela, euskal gizarteak, une honetan, aurre egin behar dien eraldaketa, aukera eta erronka garrantzitsuei erantzuteko.

Zerbitzu sozialak mailaka zabaltzeko eta egituratzeko hainbat legegintzalditan egin den ahalegina sendotzea ezinbestekoa egiten duten aldaketa eta behar sozialak asko eta esanguratsuak dira. Esaterako, hona hemen adibide garrantzitsu batzuk: bizitza esperantzaren eta dependentzia egoeren hazkundera, immigrazioa, familietara bideraturiko laguntza sozialaren murrizketa, bizikidetzaren ereduaren dibertsifikazioa, emakumeen kontrako indarkeriaren iraunkortasuna, eta pertsonen aurre egiten dien urraperen gehieneko egoerak.

Zerbitzu sozialek tresna nagusia osatzen dute aldaketa, arazo eta behar horiei eta beste batzuei erantzuteko. Baita gizarte bateratzaile, plural eta dinamikoago baten alde pausuak emateko, pertsona guztiei, behar dutenean, babesa eta sostengua eskaintzeko gai izango dena eta haien autonomia eta gizartratzea sustatuko duena. Horrela hiritargo aktiboa eta guztien partaidetza ahalbidetuko du.

Legegintzaldi honetan ahalegin asko egin dira zerbitzu sozialen legearen aurreproiektua Eusko Jaurlaritzara eramateko. Pertsona, instituzio eta agente askok esku hartu dute bai Eusko Jaurlaritzak proposaturiko lan dinamikan bai Eusko Jaurlaritzaren deialdia erantzuten, zeinen barruan zerbitzu sozialei buruzko batzorde txostengilea eratu zen.

Lan dinamika horrek ahalbidetu du administrazio publiko eta Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluan ordezkaturiko gainontzeko agente sozialek berretsitako Lege aurreproiektua egitea. Baita batzorde txostengile bat, zeinek, ez bairik gabe, eztabaida parlamentarioa aberasteko balioko duen. Horrez gain, Legebiltzarrerara bidalitako testua behar den neurrian hobetzea ere ahalbidetuko du.

Testuinguru sozialak eta egindako esfortzuak honako hau eskatu eta justifikatzen du, hurrenez hurren: zerbitzu sozialen lege berria edukitzea lehenbailehen. Lege horrek zerbitzu sozialen euskal sistema sendotzea ahalbidetuko du. Aitortzen eta bermatzen, hain zuzen ere, hiritargo guztiak zerbitzu sozialak jasotzeko duen eskubidea, dauden mekanismoak indartuz, eta baita sistema sendotuko duten tresna berriak eratuz. Tresnok, halaber, sistema horren etengabeko hobekuntza eta bere moldatzea aldaketa sozialek ahalbidetuko du.

Zerbitzu sozialen lege berri baten onarpenak ez du horretarako beharrezkoa den tresna bakarra osatzen, baina une honetan ezinbestekoa da aldaketa handien eta aurpegi ematen diegun erronken garrantziaren aurrean.